


2024ko otsailak 19  
Euskal Herria

# URRATSEZ URRATS BERTAN ERABAKI



1974 - 2024 • ZABALTZEN

# URRATSEZ URRATS

## BERTAN ERABAKI

2024ko otsailak 19, Euskal Herria

**1994ko otsailaren 19an Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko nazio manifestazio historikoa egin zen. Orduetik, Hego Euskal Herria antolakuntza eta borroka sindikalerako lurralde autonomoa izan da. Hogeita hamar urte beranduago, badugu beharra eta aukera esparru propioaren bidean urrats berriak emateko.**

Urtemuga garrantzitsuen urtea dugu 2024a. LABek 50 urte betetzen dituen urte berean betetzen dira 30 urte euskal langileontzat mugarri garrantzitsua izan zen nazio manifestaziotik. Asko aldatu da Euskal Herria eta euskal langileria azken urteetan, baina aldarrikapen hark zentralitate eta birtualitate osoa mantentzen jarraitzen du. LABek kontrabotere sindikatu independentista den heinean, sendo eusten dio Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko lanari. Egungo testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala aintzat hartu eta konpromiso berriak gureganatu ditugu.

### **1992-1994: aldaketa estrategikoa euskal sindikalismoan**

1992an bi bloke sindikal zeuden Hego Euskal Herrian: batetik, ELA-UGT-CCOO sindikatuek osatzen zutena; bestetik, nagusiki LABek ordezkatzeko zuena. Lehenak negoziazio kolektibora mugatzen zuten bere jarduna; bigarrenak, berriz, sindikalismo soziopolitikoa jartzen zuten praktikan. Lehenak elkarrizketa sozialean sinisten zuten; bigarrenak, berriz, kontrabotere sindikala aldarrikatzen. Lehenak autonomismoa zuten ipar; bigarrenak, autodeterminazio eskubidea borroka nagusi.

Alta, Espainiako Gobernuak sustatu eta bertako instituzioek onartutako politika ekonomikoaren ondorioek (desindustrializazioa, langabeziaren hazkundera, lan harremanen estatalizazioa) eskenatoki sindikala astindu egin zuten. Bi fase izan ziren: lehenengoan, LAB, ELA eta CCOO sindikatuen arteko ekintza batasuna eratu zen. 1992ko maiatzaren 27an Greba Orokorra egin zen Hego Euskal Herrian eta haren ondotik, hiru sindikatuen arteko elkarrizketak areagotu egin ziren; hala, 1993ko otsailaren 12an agiri bateratua aurkeztu genuen. Bertan, Hego Euskal Herria berrindustrializatu eta enplegua sortzeko tresna propioak aldarrikatu genituen: industria eremuko enpresa publikoak; euskal finantza erakundeak; enplegu, prestakuntza eta gizarte segurantza bertatik kudeatuko luketen euskal erakundeak; eta, oro har, euskal esparru sozioekonomikoa eraikitzen joatea.

Nafarroako CCOOek bere burua agiritik kanpo kokatu zuten, ordea, publiko egin eta berehala. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) CCOOek bide bera hartu zuten handik hilabete batzuetara. Kasu bietan, bertako CCOOek estatu mailan CCOOek UGTekin batera sustatutako ildoak lehenetsi zuten, honako ardatzetan oinarritutakoa: sindikalismoa kontrabotere gisa desaktibatzeke xedez, Espainiako Gobernuak sustatutako elkarrizketa soziala; estatuko hitzarmenen aldeko apustua; eta bertako sindikalismoa aintzat hartzen ez duen jardura sindikal estatala.

Gauzak horrela, bigarren fasea ireki zen 1993ko azarotik aurrera: LAB eta ELAren arteko ekintza batasuna Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren alde. Aldarrikapen haren aldeko mugarri izan zen, hain zuzen ere, 1994ko otsailaren 19ko nazio manifestazioa. Orduetik, Hego Euskal Herria antolakuntza eta borroka sindikalerako marko autonomo gisa eratu da, estatu mailako sindikalismoarekiko koordinada arras desberdinetan. Sei urte beranduago, 2000.urtean, LAB Ipar Euskal Herrian ere eratu zen eta geroztik bertako eskenatoki sindikala ere errotik aldatu da.

### **30 urteotan Euskal Herrian eta euskal langileriarengan izandako aldaketak**

1994ko otsailaren 19ko adierazpena idazmakinez idatzi eta faxez bidali zen prentsara; egun, digitalki sortu eta hedatzen dira edukiak. Lan prozesuak bezala, lan harremanak eta oro har harreman sozialak zeharo aldatu ditu digitalizazioak. 90eko hamarkadan hasitako lan eta bizi baldintzen prekarizazio prozesua azkartu egin da, duela hogeita hamar urte zeuden esplotazio egoerei uberizazio fenomeno gehitu zaie.

Sobietar Batasunaren amaieraren osteko sistema kapitalistaren loraldi betean, globalizazioaren eta lehiakortasunaren ustezko onurak aldarrikatzen ziren 90eko hamarkadan; egun, hazkunde mugagabearen

ameskeria amaituta, sistema kapitalista, bidegabea izateaz gain, gero eta bideraezinagoa dela ageria geratzen ari da.

90eko hamarkadaren erdialdean industria eraispena bizi zuen Euskal Herriak; egun, industrian nahiz beste eremuetan trantsizio ekosozialaren erronka du parez pare gure herriak.

Emakumeen enpleguratzearen onurak argudiatuta, lanaldi bikoitza eta soldata arrakala egiturazko bilakatu ziren 90eko hamarkadan; 30 urte beranduago, berdintasunaren erretorika faltsua agerian utzi, eta diskriminazio ororen kontrako borrokan gara, zaintza lanak aitortzeko aldarrikapenak indarra hartu du.

90eko hamarkadatik hona, beste kontinenteetatik heldutako langileen kopurua hazi da. Hamaika arrisku eta oztopo gaindituta Euskal Herrira iristen diren langileek Atzerritar Legeak errazten eta sustatzen duen esplotazioa pairatzen dute.

Maila politikoan, berriz, 90eko hamarkadaren erdialdean, konfrontazio armatua puri-purian zegoela, ezker abertzalea baztertzen zuen Ajuriaeneko Ituna ezarri eta euskal preso politikoak sakabanatu zituzten. Oztopoak oztopo eta herri bultzadari esker, urratsak eman dira gatazkaren ondorioen konponbidean.

Nazio aitortzari dagokionez, azkenik, EAEn autonomismoa, Nafarroa Garaian “erregimena” eta Ipar Euskal Herrian erakundetze eza nagusi ziren bitartean, zenbait aldaketa politiko gauzatu dira (Nafarroa Garaiko “aldaketa”, Ipar Euskal Herriko erakundetzea, ezker independentismoaren hedapena lurralde osoan) eta gehiago gauzatzeko aukera irekita dugu parez pare.

## **Euskal sindikalismoaren ibilbidearen argiak eta itzalak**

Aipatu bezala, 1992 eta 1994 arteko gertakariak euskal sindikalismoa zeharo aldatu zuten. Espainiako sindikalismoa (CCOO eta UGT, sindikatu nagusiak) elkarrizketa sozialaren amaraunean desaktibatuta geratu den bitartean, Euskal Herrian logika sindikal propioa garatu da.

Honela, estatu mailan hegemonikoak diren sindikatuak gutxiengoan daude Hego Euskal Herrian (%34) eta nekeza zaie euskal langileen aurrean estatuan dituzten ildo eta jarrera berberak mantentzea. 1993 eta 2015 bitartean Nafarroan ezarritako apartheid sindikala osoki ez baina neurri handi batean gaindituta, herrialde horretan ere gehiengo galduta dute (%55etik %48ra). Ipar Euskal Herrian, berriz, sindikatu frantsesen monopolioa hausteko urrats erabakiorrak eman dira, oraindik ere hainbat sindikatuk bazterketa sindikalari eusten badiote ere.

1994tik hona LABek ekarpen garrantzitsuak egin du bertako sindikalismoaren zabalpenean. Nabarmen hazi da hala afiliazioan (18.000tik kasik 50.000ra) nola ordezkarietan (3.000 ordezkariatik kasik 5.000ra). EAEn ordezkarietan handieneko bigarren sindikatu da, eta, %18 eskuratuta, Nafarroa Garaian besteen pare kokatu da.

Gainera, LABek bere sorreratik defendatutako ideietako asko nagusi bilakatu dira euskal sindikalismoan, hala nola, izaera soziopolitikoak, kontraboterea edota independentismoa. Ildo beretik, 90eko hamarkadatik euskal sindikalismoan androzentrismoa auzitan jartzeko LABek hasitako ibilbideak ere fruituak eman ditu; euskal sindikalismoa feministagoa da gaur 90. hamarkadan baino. Kapitalaren eta Bizitzaren arteko talkaren inguruko azterketa, sektore feminizatuen borrokaren garrantzia edota zaintzarako eskubide unibertsalaren aldarrikapena sindikatu desberdinen arteko orube komuna dugu.

Era berean, sindikalismoa sektore prekarioetara gerturatzeko ahaleginak egin dira hala LABen nola beste sindikatu batzuen aldetik. Etxez etxeko banatzaile, kultur arloko langile, landa eremuko edota etxeko langileen artean antolakuntza esperientzia garrantzitsuak egon dira azken hamarkadan. Eta sindikalismo antirrazistari dagokionez ere urratsak ematen hasiak gara; besteak beste, gero eta langile migratu gehiago antolatuz edota Bidasoako mugan langile migratuen kontrako jazarpena salatuz.

Eremu politikoari dagokionez, nabarmenak izan dira sindikatu desberdinen arteko desberdintasunak. LABek eraldaketa soziala eta burujabetzaren aldeko borroka uztartzeko lan egin du testuinguru desberdinetan. Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua edukiz betetzen laguntzeko, Euskal Lan Kodea eta Euskal Gizarte Segurantzaren definitzeko ariketa aitzindaria egin du. EAEn estatus politikoa berritzeko eztabaidaren

harira, euskal esparrua egituratu ahal izateko langileen ikuspegitik jaso beharreko gutxienekoak definitu genituen. Nafarroako aldaketa instituzionalean ekarpen garrantzitsua egin genuen eta Foru Hobekuntzaren 40. urteurrenaren edota Nafarroako Parlamentuan sortu berri den ponentziaren harira Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru Propioa egituratzeko proposamenak egin ditugu. Ipar Euskal Herrian, berriz, mugimendu abertzalea egiten ari den Bagira eztabaida estrategikoan ekarpena egiten ari gara.

Halere, kezkatzeko motiboak ere baditugu. LAB-ELA-CCOOen esperientzia laburraren ondotik (1992-1993) eta LAB-ELAren ekintza batasuna gorpuzteko egindako saiakera desberdinak agortuta (1994-1999 urte bitartekoa, 2008ko krisiari erantzuna, 2015-2020 aldia), ez dugu lortu euskal sindikalismoaren indarrak bildu eta potentzial osoa askatzea.

Badago orube komun bat eta badira bat-egite puntualak, bai maila politikoan (gatazkaren konponbideari begira Foro Sozialaren baitan egindakoak edota Palestinaren aldeko dinamika bateratua horren lekuko), bai borroka intersindikaletan (2022/23 ikasturtea aspaldiko oparoena izan da), baita dinamika sozialetan ere (pentsiodunen mugimenduarekin batera 2020an antolatutako Greba Orokorra, Aiaraldearen etorkizunaren aldeko herri dinamika indartsua, mugimendu feministarekin batera antolatutako Greba Feminista Orokorra).

Alabaina, elkarlan sendoago bat gabe, euskal sindikalismoak ez du bere eragiteko gaitasun osoa garatzerik, ez ekintza sindikalari dagokionez, ezta, bereziki, esku-hartze soziopolitikoari dagokionez. Sindikatuok egiten ditugun proposamen eta mobilizazioek ez dute 90eko hamarkadan zeukatenaren pareko oihartzunik. Euskal langileak paradigma subiranista eta antikapitalista baten arabera sozializatzeko eta antolatzeko potentziala ez da guztiz askatzen.

### **Sindikalismo subiranista Euskal Herritik harago**

Sindikalismo subiranista garatzeko eta artikulatzeko aurrerapenek, baita mugapenek ere, isla izan dute ere gure mugetatik harago, estatuetako eta Europako sindikalismo subiranista egituratzeko esperientzia desberdinetan:

- > 1996ko LABen Biltzar Nagusian, LAB, ELA, CIG eta Intersindical Canariak autodeterminazio eskubidearen inguruko adierazpena egin genuen.
- > 2006an estaturik gabeko nazioetako sindikatuen plataforma sortu zen. Estatu frantsesean, espainiarrean eta italiarrean diren nazio desberdinetako sindikatuen parte hartzearekin.
- > 2011ko apirilean. Negoziazio kolektiboaren zentralizazioaren inguruko irakurketa bateratua eta mobilizazioa Madrilan, Lan Harremanetarako Esparru Propioen defentsan. Euskal Herriko gehiengo sindikalak (LAB, ELA, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU), CIG eta Kataluniako CSCk deituta, beste hainbat sindikatu atxikitu ziren.
- > 2020ko otsailean, agenda soziala indartu eta erabakitzeko eskubidea aitortzea eskatzeko manifestua (LAB, ELA, CIG, CSC).
- > 2022tik aurrera, sindikatu eta sindikalista soberanisten Foroak antolatzen hasi dira: Bilbo, Valentzia eta Irlanda.

### **Euskal sindikalismoaren erronka aurrera begira**

1994an bezala, euskal sindikalismoaren erronka nagusia da langile guztion lan eta bizi baldintzak hobetzeko Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzea, mundu mailako krisi ekosozialari aurre egingo dion euskal trantsizio feminista eta ekosozialistaren testuinguruan.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua ez da mugatzen bertako hitzarmenen lehentasuna berrezartzera: Espainiako Gobernuak iragarri duen neurriak 2012 aurreko egoera juridikora bueltatzen du negoziazio kolektiboa, alegia, 1994ko nazio manifestazioa egin genuenean indarrean zegoen estatusera. Eta orduan esaten genuen bezala, gure helburua ez da mugatzen Espainiako Langileen Estatutuak ezarritako jokalekuan bertako hitzarmenek lehentasuna izatera, baizik eta Euskal Herrian jokaleku berri bat ezartzera,

Euskal Lan Kode baten bidez. Era berean, gure helburua ez da mugatzen Gizarte Segurantza kudeatzeko eskumena izatera, hori lehen urratsa da guretzat Euskal Gizarte Segurantza eratzeko ibilbidean.

Finean, azken 30 urteotan mugarri izan ditugun garaietan bezala, gaur ere lan harremanetan nahiz politika sozioekonomikoetan herri gisa eta langileen mesedetan erabakiak hartu ahal izateko tresnak eskuratzea da, LABen ustez, euskal sindikalismoaren erronka.

Egun bizi dugun krisi ekosozialak tresna horien premia areagotzen du. Mundu mailan errezeta neoliberal eta autoritarioak inposatzen ari dira eta Euskal Herrian badugu orube sindikal, sozial eta politikoa beste norabide batean aurrera egiteko.

LAB beti egongo da prest aipatutako erronkaren alde elkarlanean aritzeko. Hainbatetan esan bezala, aldaketa sozialaren eta burujabetzaren alde gauden euskal eragile sindikal, sozial eta politikoen arteko agenda sozial partekatua beharrezkotzat jotzen dugu. 1992-94 tartean finkatu bezala, euskal agenda soziala bertako eragileen artean adostu eta garatu behar da, eta beraz, estatuarekiko autonomia izan behar du. Era berean, eragile bakoitzaren autonomia errespetatzea oinarritzko printzipioa da; sindikatuon kasuan, langileen beharrak eta eskubideak defendatzeko.

Lan harremanetarako eta babes sozialerako agenda integral bateratua desiragarria izanik, horren faltan, gaien araberrako adostasunak bilatu beharko genituzke. Esaterako, zaintzaren inguruan mugimendu feministaren ekimenez proposatu den herri akordioa edota lan istripuei erantzuteko hainbat sindikaturen artean sustatutako elkarlana.

## **LABen konpromisoa**

Azken Biltzar Nagusian erabaki bezala, LABek bere onena emango du Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eratzeko eta euskal trantsizio ekosozialista eta feminista sustatzeko.

Hala ekintza sindikalean nola soziopolitikoan norabide horretan egingo dugu lan, ahal denean elkarlanean eta ezin denean gure indarrekin. Esparru propioaren bidean honako urratsen alde egingo du lan LABek:

- > EAEn zein Nafarroan Estatus Politikoa berritzea. Nazio aitortza egitearekin batera, lan eta bizi baldintzak bertan erabaki ahal izateko ahalmen legegilea bereganatuz.
- > Bien bitartean, hala EAEn nola Nafarroan, lan eta bizi baldintzak duintzeko, soldata eta pentsio arrakalak gaintzea, 1.400 euroko gutxieneko soldata eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea.
- > Negoziazio kolektiborako marko propioa indartzea, estatalizazioari aurre egin eta bertako hitzarmenek lehenetsun osoa izan dezaten eta hitzarmenik ez duten langile kolektiboek ere izan dezaten euren, gure eremuan negoziatua.
- > Eremita publikoan bertako zerbitzu publikoak indartzea: azpiegiturak hobetu; plantillak handitu eta ratioak hobetu; erosmen ahalmena berreskuratu; zaintza bezalako eremuak publikatu eta zaintza sistema publiko komunitarioa sortu.
- > Gure lan eta bizi baldintzak hemen erabaki ahal izateko euskal esparruaren hedapenari Estatu espainiarrean ezartzen zaizkion mugak altxatzea (gutxieneko soldata ezartzeko, negoziazio kolektiboaren egituraketari dagokionez, eremu publiko langileen soldata eta birjartze tasak ezartzeko, Gizarte Segurantzaren transferentzia eskuratuz...). Bide horretan lan egiteko proposamenak helarazi dizkiegu euskal alderdiei.
- > Ipar Euskal Herriari dagokionez, ezkerreko mugimendu abertzalea datozen urteetarako iparrorratza finkatzeko egiten ari den gogoeta estrategikoaren parte gara. Horretan ere langile aldarrikapenak jarriko ditugu erdigunean, Ipar Euskal Herriko negoziazio kolektiborako marko propio baten aldeko proposamena eguneratuz.

50 urteko gure ibilbideak erakutsi digu lan zintzo eta eskuzabalak emaitza ematen duela. Horixe da gure konpromisoa, estrategia independentista eraldatzailea lanabes hartuta, Euskal Herriaren eta euskal langileen askapenaren norabidean ortzimuga berriak zabaltzen jarraitzea.



1974 - 2024 • ZABALTZEN